

2.- SARIA: 250 € - AINARA ELIZONDO LIZARRAGA (Hondarribia, 40 urte)

Nire amets lohituetako Ximona bihotzekoa:

Furgonetaren motor hotsak ireki dizkit goizaldera begi-belarriak, erruki-etxetik ekarritako oilar alfer hori oraindik lo zela. Jakingo balu gure Rufinok baserri honetan zenbati ematen dion alferrik jaten eta zenbat bizi diren kontutik eta kolperik jo gabe...

Oraindik gogoan dut San Martin egunean sukaldeko leiho zirrikitutik ihes zihoan títula usaina, gure azkena hurbil samar zegoela iragartzen zuen mezulari mutua. Oroitu ere oroitzen naiz azaroaren 12an ezkutuan egin genuen baba jateaz, beste urtebetez, behintzat, kakoa bistatik kentzea lortu genuelako. Kinielan geunden arren, Rufinok Manuela zaharra jo zuen begiz orduan eta auskalo ze harategitako salmahaitan amaitu zuen gaixoak. Egia esan, mutur-luzetik bazuen pixkat eta horregatik, ez nintzen gehiegi atsekabetu odolki eta xolomo bihurtu zutenean. Merezi edo ez, orain isilik egongo da, behintzat, dagoen lekuan dagoela. Zu gabe, ordea, ez dakit nola arraio biziko naizen, Ximona. Furgonetan laister itzultzen ez bazara, etxe honetako paretak umezurtz geratuko dira zure marmarren faltan.

Duela bost urteko gaixoaldia ere gogoan izango duzu seguraski. Hamar egun eta hamaika gau luze eman zenituen ukuiluan etzanda, aza hostoei zeharka begira, Rufinok albaiari deitu eta nire buztana baino xiringa luzeagoa tripatik sartu zizuten arte. Harrezkero, geuk bakarrik dakigu zenbatetan egin diogun barre elkarri, nire isatsa eta hankartekoaren arteko luze-laburraren aldea zenbatekoa zen erabaki ezinik. Gaitza pasa eta handik gutxira Rufinok egindako balentria bezala, oraindik ere memorian iltzatua izango duzuna. Noizbait marka guztiak gairatu bazituen, orduan izan zen. Mojei eraman beharreko odolki-lukainak bizikletaren aurreko gurpilean trabatuta, gizarajoa. Orduan bai bete zela gure baserri-ataria txerrikeriaz, lehendik ere zikinkeria premian ez geunden, baina...

Nire bihotzeko muturmotz maitea, denbora gutxi pasa da joan zarenetik, baina dagoeneko okerrenean jarrita nago. Esana nizun behin baino gehiagotan zure fama-gose horrek ez zizula gauza onik ekarriko; hobe zenuela ezkurrarekin amets egin eta historiara pasatzeko grina alde batera utzi, baina alferrik. Nola egingo zenion uko, bada, zure txikitako ilusioari! Beti hiru txerrixoen inbidiaz; tripako minez haiek ipuin propioa zutelako eta zeu, aldiz, etxaldean bakarrik zinelako ezagun... Jakin nahi nuke momentu honetan zer darabilzun buruan, Ximi. Ederki engainatu zaitu Rufinok, parte onekoa ez zela makina batean esana nizun arren. Langileek eta enpresarioek ezin dute sekula lagun izan. Baserritarrek eta animaliek ere ez.

Hala ere, ziur nago Konstituzio Plazan ez dela zu baino txerri dotore eta mari-apainagorik sartua izango. Euria egin bakoitzean putzuluetako zeure islari begira beti, baserri bateko lau hankakoa izan beharrean, Versailles jauregiko markesa bazina bezala. Neurri batean badakit gaurko Santo Tomas eguna ahaztezina izango dela zuretzat eta hirurehun kiloko gorputz koipetsu horretan kabitu ezinik egongo zarela, ni zu ahaztu ezinik banabil ere. Hiriburuko saltsa

guztiaren erdian irudikatzen zaitut, lastoz inguratuta, baserritarrez jantzitako ume bihurriek zure azal latza ukitzeko besoa luzatzen duten bitartean. Ai, nire Ximona monona. Egunkarian atera nahiak noraino eraman zaituen...

Bi agurmaria errezatuko ditut siesta garairako buelta zaitezen eta itzultzen zarenean, oilategi ondoko gorotz pila horren atzean egingo dizkiogu elkarri egin beharrekoak: nik zu xaxatu, alegia, eta zeuk niri purrusta, ohitura onak galdu gabe. Beraz, gure Rufinok zozketan ematen ez bazaitu, hemen izango naiz zure zain, Ximona. Etxera ekarriko zaituen furgoneta zahar hori baserrira itzuliko den esperantzaz. Lokatzetan zikinduta eta Donostiako glamourraren arrastorik gabe ere, zutaz maiteminduta eta beti bezain txerri.

Urdaiazpiko izan nahi ez duen zure bihotzeko Galindo.